



DANCE TXAPELKETA

- 2018 -

1. Lehiaketa **urriaren 14an 19:30-etan** Japoniar Areto Nagusia izeneko 1. gunean ospatuko da, Zelaieta Zentroko frontoian.
2. Parte hartzaileak gutxienez 12 urte izan beharko dituzte.
3. 20 leku egongo dira: 8 dantza-taldeentzako (gehienez 10 pertsona), 8 banakako dantzarietzako eta 4 banakako kategoriarentzat edo taldeentzat inskripzioak heltzen diren heinean. **Pertsona bat ezin da bi kategorietan aurkeztu.**

Lekuak agortuta, bi itxaron-zerrenda sortuko dira ordezkioak egon daitezen, bat taldeentzat eta beste bat banakako dantzarietzat.

4. Leku guztiak eskuragarri egongo dira bai online (mezu bat bidaliz spicyramen2211@gmail.com helbidera) bai aurrez aurreko izen-ematea egiterakoan Zelaieta Zentroko sarreran kokatuta egongo den informazio puntuan.
 - Izen-ematea online eta aldaketak urriaren 11ra arte (barne) egin ahal izango dira.
 - Aurrez aurreko izen-ematea urriaren 12ko (ostirala) 17:00tik urriaren 13ko 21:00ak arte egin ahal izango da.

5. Izen-ematean datu hauek emango dira:

- Taldearen edo bakarlariaren izena. Taldeen kasuetan pertsona kopurua.
- Abestiaren edo remixaren izena.
- Bizitokia
- Telefono zenbaki bat lehiaketaren egunean beharrezkoa bada deitu ahal izateko.

Whatsapp-eko talde bat sortuko da zenbaki horiekin partaideen ordena, informazio garrantzitsua, edota bestelako aldaketan egotekotan jakinarazteko. Ez da derrigorrezkoa talde honetan parte hartzea, baina gomendatzen da emailera adi egotea.

6. Izen ematea online egiten dutenei onartutzat emateko antolakuntzak mezu bat bidaliko du.
7. **Zalantza, behar edo eskaera bereziren bat izatekotan izena ematean jakinarazi dezazuen eskatzen dizuegu.**

8. Abestiak edo remix-ak Asiakoak izan beharko dira eta gehienez 4 minutuko luzeera izango dute.
9. Soinu edo bideo artxiboa mp3/4 formatuan egon beharko da eta VLC softwarearen azken bertsioan erabilgarria izan beharko da. Izena ematerakoan emailez bidali beharko da urriaren 11ra arte edo *Informazio* Puntuaren pendrive batean aurkeztu aurrez aurrean izena ematean. Pendrivea jarraian itzuliko da.

Abestia epe barruan (urriak 11, online eta aurrez aurretik urriaren 13an 21:00ra arte) aurkeztu ezean ez da egongo parte hartzerik.

10. Abestien aukeraketa parte-hartzaileei errazteko, dokumentu publiko bat egingo da inskripzioak baieztatzen diren heinean, edonork begiratu daitekeena. Partaideen izena ez da agertuko, abestia besterik ez.

Remix bat izatekotan, bakarrik agertuko dira hautatutako abestiak, hau da, ez da esango remix batean daudenik.

Zerrenda hau da: https://docs.google.com/document/d/1na3rYOZ8R_cqYCrJne2a-luH-rcscfZTrhUP6T9wYdk/edit?usp=drivesdk

11. Izen-emateko prozesuan aldaketak egotekotan, honela kudeatuko dira:

- a) Ezin izango da abestia aldatu. Aldaketa egiteko, lekuak agortuta badaude, banako partaidea edo taldea itxaron-zerrendan jarriko da. Horretarako, izen-ematea berriz egin beharko da, eskatutako datuak bidaliz.
- b) Talde bateko kideak aldatu daitezke, baina ezin izango da bi pertsonen osatutako talde bat banakako partaidetzan bilakatu. Horrela izanik, geratzen den pertsona itxaron-zerrendan jarriko da lekuak beteta badaude. Taldeen pertsonen kopuruaren aldaketa urriaren 11ra arte bakarrik egin ahalko da, garrantzi handiko arrazoiak aurkezten direnean izan ezik.
- c) Izen-ematea bertan bera uzteak, honako hau suposatuko du:
 - Talde batek edo partaide batek erretiratzen bada eta, geroago parte hatu nahi badu, ezin izango du bere lekua berreskuratu; itxaron-zerrendan jarriko da lekuak agortuta egotekotan.
 - Talde bat atzera botatzen bada, itxaron-zerrendan dagoen hurrengo taldea aukeratuko da. Aukera hau lehiaketa baino bi egun lehenagora arte baino ez da kontutan hartuko, hau da: talde bat ostiralean edo larunbatean, lehiaketa igandean izanez, atzera botatzen bada, EZ da beste talde bat aukeratuko. Honela, gehien jota, urriaren 11an (osteguna) abisatuko da talde bat aukeratzen bada, lekuren bategotekotan. Prozedura berdina ezarriko da banakako partaideekin.

12. Partaideen zerrendan ez dira aldaketak egingo, baina parte-hartzeko ordena zozketa bidez ezarriko da, leku guztiak agortzen direnean. Ordena abestien zerrendan argitaratuko da. **Abestien zerrenda eta partaideen ordena ez du erlaziorik izango.**
13. Partehartzaileek aldagelak erabili ahal izango dituzte 18:30etatik irudian agertzen den Backstageko atea erabilita.



14. Partehartzaileak backstagean egon beharko dira 19:10ean.
15. Ikuskizunean hurrengo irizpideak jarraituko dira:
- Koreografia betetzea
 - Koreografiaren zailtasuna
 - Koordinazioa
 - Originaltasuna
 - Publikoarekiko jarrera
 - Jantziak eta itxura
 - Dantza eta jantzi originalarekiko fideltasuna
16. Epaimahaian dantza munduko adituez osotuta egongo da eta zuzenean irabazleak aukeratuko dituzte.

Sariak hurrengoak izango dira:

Bakarkako saria – 75€ + domina

Bakarkako saria – 50€ + domina

Taldeko saria – 150€ + dominak

Taldeko saria – 100€ + dominak

Epaimahaiak eskubidea izango du, hala erabakiz gero, saririk ez banatzeko, Aipamen Berezia sortzeko eta aldi berean irabazle bat baino gehiago izendatzeko eskubidea ere izango du berdinketa egonez gero. Epaimahaiaren erabakia behin betikoa eta apelaezina izango da.

- 17.** Dantzak nagusiki inprobisatuta baudaude edo ez badute fideltasuna mantentzen abesti originalarekiko, alde batera utziko dira baloratze unean, eta sarituak izateko aukera galduko dute. Remixetan, abesti batetik bestera aldatzeko momentuak edo, koreografia laburreko zatiak (5 eta 10 segundukoak) ez dira kontuan izango
- 18.** Dantza guztiak Spicy Ramen-ek grabatuko ditu epaimahaiaren erabakia laguntzeko xedearekin. Honela, alderatu ahal izango dute koreografi originala eta egindakoa, dantzaren beste aspektu batzuekin batera. Spicy Ramen-ek ez ditu bideo horiek bere sare sozialetan edo webgunetan zabalduko.
- 19.** 137/1993 Armen Araudiaren Errege Dekretuaren arabera, guztiz debekatuta dago partaideak antzezpenean zehar armak erabiltzea: su-armak, metalezko armak eta bestelako objektu mingarriak. Bere ezaugarriengatik errakuntza sortu dezakeen imitazioak ere. Horrez gain, pertsonen integritatea arriskuan jarri dezaketen elementuen erabilpena ere debekatuta dago: material piroteknikoa eta sukoia adibidez. Plastikozko, kartoizko eta arriskutsuak ezi diren beste materialen erabilpena baino ez da onartuko.
- 20.** Eszenatokia zikindu edota hondatu ditzaketen elementuen erabilpena debekatuta dago, baita pertsonen segurtasuna arriskuan jarri ditzaketenak ere: konfetia, isurkariak, purpurina, material piroteknikoa edo sukoia, ke sorgailuak, etab. Halaber, eszenatokitik kanpo objektuak botatzea guztiz debekatuta dago.
- 21.** Ezingo dira korrante elektrikora konektaturiko aparailuak, sorgailuak edo bestelako edozein konexio mota erabili efektu bereziak, soinu efektuak edo bestelakorik sortzeko asmoarekin.
- 22.** Ezin da eszenatokitik publikoarengana salto egin eta ez da onartuko jarrera desagoki edota lizunik, honen aurrean antolakuntzak jarrerari dagozkion neurriak hartzeko eskubidea gordetzen du.
- 23.** Debekatuta dago bannerrak edo publizitatearen erabilpena antzezpenaren zehar antolakuntzaren baimenik gabe.
- 24.** Lehiaketan parte hartzeak irudi eskubideen lagapena suposatzen du. Publiziterako helburuarekin partehartzaileen irudiak komunikabide desberdinetan (Telebista programak, Internet, egunkariak, aldizkariak, etab.) erabili ahal izango dira. Ez da sari ekonomikorik egongo honegatik.
- 25.** Lehiaketan izena ematean antolatzaileei erraztutako datu pertsonalak konfidentzialtasunez erabiliko dira 15/1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoaren arabera. Lehiaketa hau burutzeko baino ez dira erabiliko eta ez zaie hirugarrenei utziko ezta salduko ere.

26. Antolakuntzak eta epaimahaiak oinarri hauetan araututa egon ez arren, lehiaketaren arrakasta hobe bateri lagun dezaketen edozein ekimen hartzeko eskubidea gordetzen du.

27. Lehiaketan parte hartzeak honako oinarrien onarpena suposatzen du.

KONTAKTUA:

Zalantzarik izatekotan e-mail bat bidali dezakezu hurrengo helbidera:
spicyramen2211@gmail.com

Facebook <https://www.facebook.com/tumangamore/>

Twitter <https://twitter.com/mangamore>